

2022KO OTSAILAREN 2KO EZ-OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeita bateko abenduaren batean

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.
Jule Aranburu Mariezkurrena.
Erkuden Aguirre Arruabarrena.
Aitor de Astobiza Uriarte.
Miren Arantza Oiarbide Perez.

EZ BERTARATUTAKOAK:

Miren Arantza Oiarbide Perez.
Iñaki Zabalo Echezarreta

IDAZKARIA: Endika Jaio Bilbao.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zortziak.

Udalbatza hasi orduko idazkariak azaltzen du otsailaren 3tik aurrera beste idazkari bat egongo dela lanean azaltzen du eta, ondorioz, aurreko udalbatzik hona egin diren alkatetza ebazpenak urgentziazko puntu moduan sartzeko proposamena egiten du. Hala nola, presaz onartu beharreko faktura batzuk daudela ere azaltzen du idazkari kontu-hartzaileak. Bi kontu hauek, Azkeneko Udal Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza ebazpenen berri ematea zein presaz onartu beharreko fakturak onartu ahal izateko gaitegian sartzeko urgentzia bozkatzeko da. Behin bozkaketa eginda urgentzia onartzen da eta azkenengo gai moduan ezartzen dira gaitegian.

- **Aurreko bilkurako aktaren onarpena, hala badagokio: 2021ko abenduaren 1ekoko Ohiko Bilkurari dagokion akta.**
Ezer berezirik ez da ikusten aktan, eta, ondorioz, onartu egiten da
- **2022ko aurrekontu proposamena onartzea, hala badagokio**

Alkateak aurrekontuei buruzko azalpena ematen du bere ildo nagusiak zeintzuk diren argituaz. Mutiloako Udalaren 2022rako aurrekontu-proiektua **537.547,78 eurokoa da sarreretan** eta **537.547,78 eurokoa gastuetan**. Beraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak eskatzen duen aurrekontu-berdinketa dago.

2022rako aurreikusten diren inbertsio nagusiak azaltzen ditu, eta hauexek dira:

PROIEKTUAREN IZENA	ZENBATEKOA
mendibideetan iharduera fisikoa	6.000,00
lursailetan langak jartzea	6000
baserri bideak konpontzea	40.000,00
mendiak ongarritzea	6.000,00
Autobus geltokiko lanak	11844
forntoi inguruko lanak	30.000,00
bide berdeen konponketa	30.000,00
argiteria aldatu- eve	20.000,00
troiko lurrak erostea biodibertsitatea	12.000,00
aldaperoa aurretik lanak	6000
gazte lokalean lanak	3.000,00
telebista ekipoak	3377,02
GUZTIRA	174.221,02

Horrez gain, aurreikusten diren transferentzien berri ere ematen du, hauexek izanik:

KONTZEPTUA	DIRU-LAGUNTZAREN HELBURUA	ZENBATEKOA (EURO)
Segura-Ormaiztegiko udalak:eskola	Eskoletan sortzen diren gastuei aurre egitea	14000
Eudel: urteko kuota		0
Sasieta: hondakin bilketa	Hondakin bilketa amankomunatuaren zerbitzua ordaintzea	14.709,69
Sasieta: hondakin solidoen kudeaketa	Hondakin solidoen kudeaketa amankomunatuaren zerbitzua ordaintzea	919,36
Sasieta: hondakin tratamendua	Hondakin tratamendu amankomunatuaren zerbitzua ordaintzea	7354,84
Goimen Elkarteari aportazioa	Goierriko garapen agentzia izanik, eskualdea eta herriaren garapena bultzatzea	6000
Goiekiri aportazioak	Landa Garapena sustatzeko elkarte izanik, Zerainen garapena sustatzeko aportazioa egiten da	6000
Pirinioetako Burdinaren Bidea	Bide honen sustapenari aurre egitea, turismoa bultzatzea	1000
Ongizateko dirulaguntza bereziak	Herritarrek dituzten oinarrizko beharretarako diru-laguntzak	2000
Goierriko Herrien Ekintza:eskola	Goierriko herrien ekintza eskolaren gastuei aurre egitea	1929
Kultura sustapenerako laguntzak	Herrian kultura sustatzea eta ekimenak aurrera eramatea	6000
Euskera sustapenerako laguntzak	Herrian esukara sustatzea eta ekimenak aurrera eramatea	4000
GUZTIRA IV KAPITULUA - TRANSFERENTZIAK		63912,89

Galderarik ez bestelako hitzartzerik ez denez izan bozkaketa egin da eta AHO BATEZ ONARTU dira aurrekontuak.

- **Azkeneko Udal Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza ebazpenen berri ematea**
Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaien, hain zuzen ere, 2021eko 43 zenbakitik 44ra eta 2022ko 1etik 6ra.
Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira (Ebazpenen bitartez onartuta dauden 3.000 eurotik gorako fakturei dagokienez, informazio zehatza azken puntuan emango da).
- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**
Honako hau da aurkeztu den zerrenda, argitu da presa kontua dela eta, batzuk Alkatetza Ebazpenaren bitartez bideratu ondoren dagoeneko ordainduta daudela:

ENPRESA	KOPURUA
ALUMINIOS GOIERRI S.L.U.	8.282,22
TRABAJOS ESPECIALES ZUT, S.A	20.570,00
GUZTIRA	28.852.22

- **GALDE-ERREGUAK**
Ez daude

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20.00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut